Altzako Historia Mintegia
www.altza.net

# OHIKO BATZAR OROKORRAREN AKTA
# ACTA DE LA ASAMBLEA GENERAL ORDINARIA

Casares Kultur Etxean, 2013ko martxoaren 14an, Altzako Historia Mintegiaren Ohiko Batzar Orokorrari hasiera eman zitzaion arratsaldeko 07:00ean, ondoko partaide hauekin: …..
……….. bazkideek ezin izango dutela etorri jakinarazi dute.

En la Casa de Cultura Casares, a las 07:00 de la tarde del día 14 de marzo de 2013, se celebró la Asamblea General Ordinaria de Altzako Historia Mintegia con la participación de: ……
Excusan su asistencia ……

**1. 2012. urteko memoriaren onarpena**
Idazkariak 2012 urteko memoria aurkeztu zuen:

**1. Aprobación de la memoria del año 2012**
El secretario presentó la memoria del año 2012:

**1. Jarduerak**

1. Altzanet
2. Argitalpenak
   - 2.1. Altza, Hautsa Kenduz
   - 2.2. Album altzatarra Sarroeta-Martutene
   - 2.3. “Cuaderno de Tere”
   - 2.4. Estibaus
   - 2.5. Egutegia
3. Dokumentazio zentroa
   - 3.1. Altzako Tokiko Bilduma
4. Lekukoak
5. Ganbara bilduma
6. Ibilaldiak
   - 6.1. Plus 55
7. AltzaNatura
8. “Altzak soinu, Altzak doinu” kontzertua
9. Altza Barrutia
10. Elkartearen bizitza eta harremanak
11. Urtearen balorazio orokorra

**1. Actividades**

1. Altzanet
2. Publicaciones
   - 2.1. Altza, Hautsa Kenduz
   - 2.2. Album altzatarra Sarroeta-Martutene
   - 2.3. “Cuaderno de Tere”
   - 2.4. Estibaus
   - 2.5. Calendario
3. Centro de Documentación
   - 3.1. Colección Local de Altza
4. Lekukoak
5. Ganbara
6. Excursiones
   - 6.1. Plus 55
7. AltzaNatura
8. Concierto “Altzak soinu, Altzak doinu”
9. Distrito de Altza
10. Vida de la asociación y relaciones
11. Valoración general del año

**1. Altzanet**

Aurreko urtean zehar, bisitarien kopurua handitu da, 64.155 izanik. Egunero webgunean sartu diren batez besteko bisitarien kopurua 176 izan da. Bestalde, 2010. urtean zehar ikusi diren orri kopurua ere handitu da 2009. urteko datuekin konparatuz. Guztira 266.740 orri ikusi dira.

**1. Altzanet**

El número de visitantes del sito web durante el año 2011 ha aumentado hasta las 64.155 visitas, con una media de 176 visitas diarias. El de páginas vistas también ha aumentado con respecto al año anterior, habiéndose visualizado 266.740 páginas durante todo el año.






Nahiz eta bisita gehienak inguruko herrialdetik izan, Internet-ek eskaintzen duen aukeraz baliatuz, Altzako webguneak herri desberdinetako bisitariak izan ditu. Ondoko mapan gure webgunean egindako sarrerak nondik izan diren ikus daiteke.

Aunque una parte importante de estas visitas se han realizado desde un ámbito cercano, las posibilidades que da Internet hacen que los accesos a la página web de Altza se hagan desde diversas partes del mundo, como se pude apreciar en el siguiente mapa, donde se recoge la distribución geográfica de las visitas.




Joan den urtean zehar egindako PPT edo PDF dokumentuen deskargak, beste datu oso azpimarragarria izan da. Guztira 2011 urtean 25.921 dokumentu desberdin PPT edo PDF formatuan deskargatu dira. Ondoko taulan 10 dokumentu deskargatuenak eta izan duten deskargen kopurua ikus daitezke. Dokumentu deskargatuena izan da Tokiko Bilduman argitaratu zen Beatriz Herreras-en "Altza. Historia y Patrimonio" lana.

También hay que reseñar el alto número de documentos en formato PPT o PDF de todo tipo que se han descargado de nuestra página a lo largo del año 2011. En total han sido 25.921 descargas. El trabajo de Beatriz Herreras "Altza. Historia y Patrimonio" publicado en la colección Artiga ha sido el más descargado, como se puede ver en la siguiente tabla, donde se recogen los 10 documentos más descargadas y su correspondiente número de descargas.

| | Descargas | Resultados | B |
|---|---|---|---|
| 1. | /pdf/artiga/artiga04.pdf | 1.069 | 728,3 |
| 2. | /pdf/ahk7/07-Pascual-Garcia.pdf | 814 | 94,4 |
| 3. | /pdf/ahk4/14-Roquero.pdf | 568 | 402,3 |
| 4. | /pdf/ahk7/03-Saez+Garcia.pdf | 492 | 170,2 |
| 5. | /pdf/ahk7/06-Calvo.pdf | 419 | 89,7 |
| 6. | /pdf/ahk8/01-Martinez-Adarraga.pdf | 387 | 36,6 |
| 7. | /pdf/artiga/artiga02.pdf | 363 | 72,2 |
| 8. | /pdf/ahk8/08-Barrero.pdf | 311 | 28,5 |
| 9. | /pdf/genealogia/Genealogia.ppt | 308 | 1, |
| 10. | /pdf/artiga/artiga07.pdf | 289 | 289,8 |
| | Totales: | 25.921 | 9,6 |

Bestalde, Facebooken gure kontuak dituen jarraitzaileak aztertuz AHMren inguruan sortutako sare sozialaren ezaugarriak ikus ditzakegu. Elkartearen proportzio berean banatzen dira emakumezkoak eta gizonezkoak, baina bizilekuari erreparatzen badiogu alde handia dago elkartearen eta sare sozialaren artean. Elkartean %15 soilik bizi bada Donostiatik kanpo, Facebookeko 87 jarraitzaileen %55 geografian zehar barreiatzen da: Madril, Bilbo, Gasteiz, Bartzelona, Cáceres, Miajadas, Errenteria, Poza de la Sal, Alacant, Fuenlabrada, Deba, Etxalar, Irun, Oñati, Zarautz… eta beste lau lagun Amerikan: Peru, Brasil, Uruguay eta Estatu Batuak.

Twitterren kontua azaroan ireki genuen eta oraindik goiz da balorazioak egiteko, baino dagoeneko sare horretan murgildu gara eta haren bitartez beste esfera batekin, beste sare batekin kontaktatu dugu, ezagutzaren hedapenean bide berriak urratuz.

Azkenik, aipatu behar dugu aurreko urteetan bezala zerbitzu hauek ere mantendu direla:

- AHMren web gunearen edukiak gehitu dira. "Ganbara" Bildumaren atal digitala osatu da, jasota dauden objektuen fitxa guztiak jarriz. Halaber, "Altza, hautsa kenduz" bildumaren azken liburuan argitaratu diren artikulu guztiak era digitalean eskaini dira.
- Urtean zehar Altzan antolatu diren ekintzen informazioa era digitalean eskaini da: web gunearen edota posta elektronikoaren bidez.
- "Altza prentsan" atalean egunkarietan Altzaren gainean azaltzen diren berriak egunero jaso dira.
- Helbide elektronikoak, altza.net domeinuarekin, dohainik banatzen jarraitu da.
- Bi posta zerrendak kudeatu dira: altzanet@altza.net eta altza21@altza.net.
- Intraneta elkartearen barneko lanerako sortu da.

Por otro lado, analizando los seguidores que tiene la cuenta de Facebook podemos ver las características de la red social que ha surgido alrededor de AHM. El reparto de mujeres y hombres es en la misma proporción que en la asociación, sin embargo, si reparamos en la ubicación geográfica se da una gran diferencia. Mientras que entre los y las miembros de la asociación sólo un 15% vive fuera de Donostia, el porcentaje sube al 55% entre los 87 seguidores y seguidoras que tenemos en Facebook, distribuyéndose por ciudades como Madrid, Bilbo, Gasteiz, Barcelona, Cáceres, Miajadas, Errenteria, Poza de la Sal, Alacant, Fuenlabrada, Deba, Etxalar, Irun, Oñati, Zarautz… y otros cuatro en América: Peru, Brasil, Uruguay y Estados Unidos.

En noviembre se abrió una cuenta en Twitter y todavía es pronto para hacer valoraciones, pero ya nos hemos introducido en esa esfera virtual, contactando con una nueva red de personas y abriendo nuevos caminos en el desarrollo del conocimiento.

Por último, señalar que se han mantenido los mismos servicios que en años anteriores:

- Se ha ofrecido información en formato digital de las actividades organizas en Altza, a través de la página web y del correo electrónico.
- En la sección "Altza en la prensa" se han ido recogiendo diariamente las noticias que sobre Altza se publican.
- Se ha continuado extendiendo de forma gratuita el uso del dominio altza.net en el correo electrónico.
- Se han gestionado dos listas de correo: altzanet@altza.net y altza2l @altza.net.
- Se ha continuado con el uso de mensajes SMS a través de web en las comunicaciones de la asociación.
- Se ha creado una Intranet para el trabajo interno de la asociación.

**2.1 Altza, Hautsa Kenduz**

Abenduaren 16an Tomasenen "Altza, Hautsa Kenduz" bildumaren hamaikagarren zenbakia aurkeztu zen. Aurkezpenera jende asko etorri zen, aretoa lepo zegoen. Denetara 24 artikulu, 290 orrialde eta 600 ale argitaratu dira. Edukien aldetik, ale hau da bildumaren historian argitaratu den handiena:

- AHMren 25 urte. Iragana, oraina, geroa

1. El yacimiento prehistórico de Ametzagaina / Jesús TAPIA, Francisco BARRIO
2. Querella criminal contra Juan Ángel de Arzac Parada (1738) / Mª Rosario ROQUERO USSÍA
3. Plan nuevo beneficial y su aplicación (1776) / Fermín MUÑOZ ECHABEGUREN
4. Análisis de la población altzatarra en el siglo XVIII / Juan Carlos MORA
5. Azken karlistadaren lekukoak / ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA
6. Doce meses negros en la historia amescoana (Julio 1834 – Julio 1835) / Balbino GARCÍA DE ALBIZU
7. Primavera en La Serena. La quietud y el silencio / Antonio DÁVILA
8. Gure aitona eta Gerra Zibila, memoria eta Historia / Iñigo LANDA IJURKO
9. Documentos de la Guerra Civil en Altza / ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA
10. Nuevos tiempos para la ermita de Uba / Angel CALVO BARCO
11. Nuestros molinos / Antxon AGUIRRE SORONDO
12. Escuela profesional de la mujer (Instituto de la Construcción) 1960-1976 / Elena ARRIETA YARZA
13. Una pequeña gran historia de prevención: el Taller de Askagintza-Altza / Ion BURGI, Xabier ARANA
14. El cross de Herrera / Antxon SEGES
15. Os nosos gaiteiros / Filipe DOMÍNGUEZ AVILÉS
16. Trintxerpeko txistulariak / Daniel SOLIÑO, Mikel LAZKANO
17. Juantxo Koka: Pilotalekuko artista / Raul PEREZ
18. Manuel Arrieta Irizar: Afición al ciclismo / ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA
19. Artzaia / Iñaki MARTIARENA "MATTIN"
20. Homo samariarra / Joan Mari IRIGOIEN
21. Altzako Ipuin eta Bertsopaper lehiaketak / BIZARRAIN KULTURA-ELKARTEA
22. Los Bereberes del Alto Atlas / JOXERRA
23. Larga vida al libro / Concepció CARRERAS
24. Argazki albuma, Larratxo / Jon Serrano
25. "Altza, Hautsa-Kenduz"-en argitaratutako idazlanen aurkibidea

Aurreko hamar aleetan bezala, azala Joaquin Garridok egin du.

Liburuaren aukezpenarekin batera 2012 urteko egutegia ere aurkeztu zen eta, ekitaldiaren hasieran eta bukaeran, Daniel Soliño txistulariak eta Manu Gomez gaita joleak, hurrenez hurren, hainbat pieza interpretatu zituzten.

**2.1 Altza, Hautsa Kenduz**

El 16 de diciembre se presentó en Tomasene el número 11 de "Altza, Hautsa Kenduz". Asistió mucha gente y la sala se llenó. En sus 290 páginas han quedado recogidos 24 artículos y ha tenido una tirada de 600 ejemplares. Por sus contenidos, este número es el más amplio y variado que se ha publicado hasta el presente:

- 25 años de AHM. Pasado, presente y futuro.

1. El yacimiento prehistórico de Ametzagaina / Jesús TAPIA, Francisco BARRIO
2. Querella criminal contra Juan Ángel de Arzac Parada (1738) / Mª Rosario ROQUERO USSÍA
3. Plan nuevo beneficial y su aplicación (1776) / Fermín MUÑOZ ECHABEGUREN
4. Análisis de la población altzatarra en el siglo XVIII / Juan Carlos MORA
5. Azken karlistadaren lekukoak / ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA
6. Doce meses negros en la historia amescoana (Julio 1834 – Julio 1835) / Balbino GARCÍA DE ALBIZU
7. Primavera en La Serena. La quietud y el silencio / Antonio DÁVILA
8. Gure aitona eta Gerra Zibila, memoria eta Historia / Iñigo LANDA IJURKO
9. Documentos de la Guerra Civil en Altza / ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA
10. Nuevos tiempos para la ermita de Uba / Angel CALVO BARCO
11. Nuestros molinos / Antxon AGUIRRE SORONDO
12. Escuela profesional de la mujer (Instituto de la Construcción) 1960-1976 / Elena ARRIETA YARZA
13. Una pequeña gran historia de prevención: el Taller de Askagintza-Altza / Ion BURGI, Xabier ARANA
14. El cross de Herrera / Antxon SEGES
15. Os nosos gaiteiros / Filipe DOMÍNGUEZ AVILÉS
16. Trintxerpeko txistulariak / Daniel SOLIÑO, Mikel LAZKANO
17. Juantxo Koka: Pilotalekuko artista / Raul PEREZ
18. Manuel Arrieta Irizar: Afición al ciclismo / ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA
19. Artzaia / Iñaki MARTIARENA "MATTIN"
20. Homo samariarra / Joan Mari IRIGOIEN
21. Altzako Ipuin eta Bertsopaper lehiaketak / BIZARRAIN KULTURA-ELKARTEA
22. Los Bereberes del Alto Atlas / JOXERRA
23. Larga vida al libro / Concepció CARRERAS
24. Álbum fotográfico: Larratxo / Jon Serrano
25. Índice de los trabajos publicados en números anteriores

Como en los diez números anteriores, la portada ha sido realizada por Joaquín Garrido.

Junto con la presentación del libro, también se presentó el calendario de 2012 y actuaron al principio y al final del acto el txistulari Daniel Soliño y el gaitero Manu Gómez, respectivamente.

**2.2 Album altzatarra 1953-1978**

Ekainaren 30ean Euskal Giroa elkartean aurkeztu genuen argazki-liburua. Hainbat pertsonen eta elkarteen ekarpenen bidez hornitzen ari garen Altzako Tokiko Bildumako 99 argazkiez osaturik dago. 1953-1978 urte bitarteko irudi hauek Altzaren hazkundearen eta eraldaketa fisiko zein sozialen oroimena dira, estiloen, erritmoen eta ohituren aldaketena. Argazkien bitartez, garai zail hartako komunitate altzatarra islatu nahi izan da, pertsonen eta elkarrekin bizitutakoen lekukotasuna nabarmenduz.

**2.2 Album altzatarra 1953-1978**

El día 30 de junio presentamos en la sociedad Euskal Giroa el libro de fotografías Álbum altzatarra 1953-1978. El libro lo componen 99 imágenes, que forman parte de La Colección Local de Altza en la que numerosas personas y entidades han colaborado compartiendo sus fotografías a lo largo de estos 25 años. Las imágenes del álbum reflejan las transformaciones sociales producidas en ese periodo de tiempo tan duro, pero al mismo tiempo tan importante para la conformación de la realidad altzatarra actual.

**2.3 Estibaus bloga**

Buletina digitalean (www.estibaus.info) 40 sarrera argitaratu ditugu, astean behin gutxi gorabehera. Honela sailkatuak: Notiziak 12, Iritziak 7, Kronikak egungoak 5, Kronika zaharrak 3, In memoriam 2, Txangoak 6, Tokiko Bilduma 3, Ganbara 2, Bertsoak 2.

Sarrerak sortzen aritu direnak hauek dira: Elena Arrieta, Antxoni Loro, Angel Calvo, Javier Cantera, Zigor Etxeburua, Bizarrain,

**2.3 Boletín Estibaus**

En el blog Estibaus (www.estibaus.info) se han publicado 40 entradas, a una por semana, poco más o menos: Noticias 12, Opiniones 7, Crónicas actuales 5, Crónicas antiguas 3, Excursiones 6, In memoriam 2, Ganbara 2, Bertsoak 2, Colección Local 3.

Los autores de las entradas han sido: Elena Arrieta, Antxoni Loro, Angel Calvo, Javier Cantera, Zigor Etxeburua, Bizarrain, Alberto

Alberto Martinez, Maribel Manzano eta Iñigo Landa.
Blogaren sarrerak 124 harpidedunei bidaltzen zaizkie posta elektronikoz. Horrez gain, Altzanet posta zerrendaren bitartez ere banatzen da eta baita sare sozialen bitartez, AHMk Facebooken duen kontuan eta aurten ireki dugun Twiter kontuen bitartez. YouTubera ez dugu bideorik igo, zehazteko baitago zein kanalaren bidez egingo dugun.

Martinez, Maribel Manzano eta Iñigo Landa.
Con cada una de las entradas se envía un mensaje a 124 subscripciones y a la lista de correo Altzanet. Además, las entradas las divulgamos a través de Facebook y la cuenta de Twiter que hemos abierto este año. En YouTube no hemos subido ningún video, a la espera de que definamos mejor cual va a ser el canal a utilizar.

**2.4 Egutegia**

Aurten ere 2012ko egutegiak argitaratu ditugu. Oraingoan ere argazki zaharrekin osatu dugu, "Album Altzatarra" liburuan argitaratutakoekin. Egutegia "Altza, Hautsa Kenduz" liburu berriarekin batera banatu zen. Egutegi handiaren 1.000 ale argitaratu dira, eta txikiaren beste 1.500. Banaketa liburuaren aurkezpen egunean egin zen eta, aurreko urteetan bezala, Altzako Olentzerotan, dendetan eta kultur etxeetan ere banatu ziren.
Egutegiaz arduratu direnak Jon Serrano eta Pili Lázaro izan dira. Laguntzaileak hauek izan dira: Zyma grafikagintza, Berpiztu Elkartea, BM Supermerkatua, Nido eta Zumardi tabernak.

**2.4 Calendario**

Este año también ha habido calendarios. Los calendarios se han compuesto con una selección de fotos del "Album Altzatarra", y fueron presentados junto con el último número de "Altza, hautsa kenduz". La tirada ha sido de 1.000 ejemplares de los grandes (A3), 1.500 de los pequeños. Se repartieron según los criterios de años anteriores.
Los patrocinadores han sido: Gráficas Zyma, Berpiztu Elkartea, Supermercado BM y los bares Nido y Zumardi. De la realización del calendario se han encargado Jon Serrano y Pili Lázaro.

**3. Altzari buruzko dokumentazio zentroa**

**Hemeroteka**
Jarraitu dugu, aurreko urteetan bezala, Altzari buruz eguneroko prentsan argitaratu dena biltzen. Notiziak egunkari hauetatik bildu ditugu: Irutxuloko Hitza, Diario Vasco, Noticias de Guipúzcoa, Gara, Berria, eta Deia. Lan honetaz Antxon Alfaro arduratu da.
**Fototeka**
Argazki berriak eta informazioa biltzen jarraitu dugu. Arduraduna Jon Serrano izan da.
**Ikerketak**
Joan den 2011. urtean, bi ikerketa eta dokumentazio lanak burutu ditugu. Bata **"Azken karlistadaren lekukoak"** izenburukoa da eta bestea "**Documentos de la Guerra Civil en Altza**". Ikerketa biak argitaratuak izan dira "Altza, Hautsa Kenduz" liburu sortaren 11. zenbakian.

**3. Centro de documentación sobre Altza**

**Hemeroteca**
Hemos continuado como en años anteriores reuniendo las noticias publicadas en la prensa local referentes a Altza en los siguientes medios: Irutxuloko Hitza, Diario Vasco, Noticias de Guipúzcoa, Gara, Berria, y Deia. El responsable ha sido Antxon Alfaro.
**Fototeca**
Hemos continuado reuniendo fotografías. El encargado ha sido Jon Serrano.
**Investigación**
En 2011 hemos realizado dos trabajos de investigación y documentación. El primero trata de la última guerra carlista, "Azken karlistadaren lekukoak", y el segundo "Documentos de la Guerra Civil en Altza". Ambos han sido publicados en el último número de Hautsa Kenduz.

**3.1 Altzako Tokiko Bilduma**

Joandako urtearen balantze ona egin dugu eta, datozen urteetan indartu beharreko puntu batzuk badaude ere, gustura gaude egindakoarekin. Tokiko Bildumaren jarduerak oinarri tinkoak ditu eta horien artean hauek nabarmenduko genituzke:
- Donostia Kultura eta AHMren arteko elkarlana eta konfiantza. Urteurrenaren inguruan gauzatutako egitaraua horren froga izan da eta eragin zuzena izan du Tokiko Bildumaren jendarteratzean.
- Baliabideen egokitasuna. Tokiko Bilduma Casares oinetxean dauka egoitza, bere historiagatik eta egun betetzen duen funtzioagatik, eraikin sinboliko batean. Horri, egun dituen baliabideak gehitu behar zaio, giza baliabideak zein baliabide teknologikoak, eta bai batean zein bestean, ongi jantzita dago jarrita dituen helburuei aurre egiteko eta bere jarduera garatzeko.
- Herritarren erreferentea. Tokiko Bilduma lehendik bazen erreferente bat Altzan eta Altzatik kanpo eta ezaugarri horri eutsi dio indar berriekin azken urtean. Altzatarrek jarraitu dute bere dokumentuak Tokiko Bildumara ekartzen eta Tokiko Bildumara jo dute dokumentuen beharra izan dutenean. Beste herri eta auzoetatik ere Altzako Tokiko Bildumara jo dute ereduen bila. Horiek guztiek erakusten digute Tokiko Bilduma zerbitzu publiko moderno eta eraginkorra eskaintzeko gai dela.

Indartu beharreko atalak badaudela esan dugu eta, batez ere, bi aipatuko genituzke, datozen ekitaldietan helburu nagusiak bihurtu behar direnak:
- Dagoen funtsa osoaren katalogazioa. Biltzen dena eta katalogatzen dena ez doa parean eta ez dira hazten neurri berean, hau da, dokumentu gehiago biltzen dira katalogatzen direnak baino.
- Funtsaren hedapena. Web orria hedapen bide nagusia da eta izango da, baina, horrekin batera, beste bideak ere jorratu eta probatu behar dira ahal den jende gehienarengana heltzeko, eskolekin lan eginez, adibidez.

**Altzako Tokiko Bildumaren funtsa**
2011. urtean katalogatutako dokumentuen kopuruak handitzen jarraitu du. Une honetan Bildumaren funtsa 8.101 dokumentuz osaturik dago, eta horietatik 7.831 webaren bitartez kontsulta daitezke.

**3.1 Colección Local de Altza**

El balance que hacemos del curso pasado es bueno y, aunque hay algunos aspectos que deben ser reforzados, estamos satisfechos con lo realizado. En la actualidad las condiciones en que se desarrolla su actividad son buenas:
- Entre Donostia Kultura y AHM hay colaboración y confianza suficientes, tal y como ha quedado demostrado en el desarrollo del programa del 25 aniversario.
- Los medios con que cuenta son también más que suficientes. Su ubicación en una sede como Casares, un edificio simbólico por su historia y por lo que representa en la actualidad. Además, contamos con un equipamiento tecnológico y material adecuado para el cumplimiento de los objetivos que tiene señalados la Colección Local.
- La Colección Local sigue siendo un referente en Altza y fuera de Altza, característica que se ha visto reforzada estos últimos años. Los altzatarras siguen aportando documentos y recurren a su consulta cuando lo precisan. Así mismo, desde otras localidades y barrios próximos se han dirigido a Casares para conocer mejor su modelo de funcionamiento. La Colección Local es un servicio público y moderno que ha demostrado su eficacia.

Hay también aspectos de su actividad que precisan ser mejorados y reforzados, de los cuales citaremos dos que deberían ser considerados prioritarios en los planteamientos venideros:
- La catalogación de todo el fondo depositado. Lo que se recoge desborda la capacidad de catalogación por lo que muchos documentos no se pueden fichar y quedan almacenados sin poder ser consultados.
- Divulgación del fondo. La página web es la vía principal de difusión de su contenido, pero, al mismo tiempo, habría que trabajar otras maneras de divulgación para llegar a más gente, a las escuelas, por ejemplo.

**El fondo de la Colección Local**
En 2011 ha aumentado el fondo catalogado. En la actualidad está compuesto por 8.101 documentos, de los cuales 7.831 se pueden consultar a través de la web.

Tokiko Bilduma une honetan zertan den ondoko taulan ikus daiteke:

La composición de la Colección Local según el tipo de documento se pude observar en la siguiente tabla:

| Dokumentu-mota / Tipo de documento | Datu basea / Base de datos | Web |
|---|---|---|
| Artxibo-dokumentuak / Doc. De archivo | 2782 | 2781 |
| Aldizkariak / Revistas | 254 | 81 |
| Aldizkari-artikuluak / Artículos de revista | 1072 | 1072 |
| Liburu-artikuluak / Artículos de libros | 83 | 83 |
| Separata | 10 | 10 |
| Argazkiak / Fotografías | 2430 | 2364 |
| Diapositibak | 468 | 460 |
| Bideoak | 40 | 40 |
| Audio | 49 | 39 |
| Kartografia | 25 | 24 |
| Planoak | 74 | 74 |
| Prentsa | 814 | 803 |
| **DENETARA** | 8.101 (+253) | 7.831 (+468) |

Webean digitalizatuak dauden dokumentuak eskaintzen dira eta, gainontzekoak, katalogatuak badaude ere, Tokiko Bildumara zuzenean kontsultatuz eskuratu daitezke soilik.
Badago, bestalde, dokumentu multzo bat Casaresen gordea baina katalogatu gabe dagoena. Multzo hau kuantifikatu gabe dago eta urte berrian zehar egin beharreko lana izango litzateke.
Dokumentuen nolakotasunari begiratzen badiegu, horietako 3.852 (%47,55) orijinalak dira eta gainontzeko 4.249 (%52,45) kopiak, fotokopiak edo artxibo digitalak.

**Hedapena**

Casaresen bertan arreta zuzeneko zerbitzua eskaini da, astean egun bat, ostegunetan, arratsaldeko 17:30etatik 20:30era. Zuzeneko zerbitzu hau telefonoz (Casareskoa eta mugikorra) eta posta elektronikoz ere eskaini da eta hainbat kontsulta jaso dira.
Urtez urte kopuruak behera egin du (123 kontsulta 2008. urtean, 104 2011. urtean). Erabilpen baxua izan arren, mantendu beharreko zerbitzua dela uste dugu. Ez dugu ahaztu behar Tokiko Bildumaren garapenean pertsonen arteko harremanak izan duen garrantzia, dokumentuen eta informazioaren bilketan eta, jakina, hedapenean. Kontsulta zerbitzu honek, bestalde, dedikazio handia eskatzen du arduradunaren aldetik, kontsultak artatzeak eta erantzuteak denbora eskatzen baitu, eta merezi du hau ere gogoratzea.
Dagoen eskaera maila eta erantzuteko gaitasuna ikusita, eta telefonoz edo posta elektronikoz beste momentu bat hitzartzeko aukera dagoela kontuan hartuz, zerbitzu hau astean egun batean eskaintzea nahikoa da.
Horrez gain, Tokiko Bilduma interneten bitartez (www.altza.info) kontsulta daiteke eta hau da kontsulta bide ahaltsuena, ondoko taulan eta grafikoan ikus daitekeenez.
Denera, 2011. urte osoan, 26.741 bisita izan ditu. Ezin da aurreko urtekoekin behar bezala konparatu (17.567 bisita), 2010. urtean lau hilabeteetan soilik egon zelako zabalik eta hasierako publizitate kanpaina handia izan baitzen eta, berrikuntzarekin batera, nabarmen nabaritu zen.
Bisita kopuru handiena 25. urteurrenaren kariaz Casares-Tomasene Kultur Etxeak eta AHMk antolatutako ekitaldiekin bat egiten du: Ganbararen erakusketa irailean ( 2.449 bisita), Kontzertua eta Tokiko Elkarteen Topaketa azaroan (3.186 bisita), eta azkenik, Altza Hautsa Kenduz liburuaren aurkezpena abenduan (2.795 bisita).
Datu horien taula eta grafikoa hauek dira:

En Internet se ofrecen únicamente los documentos que están digitalizados y el resto, aunque estén catalogados, sólo se pueden consultar in situ en Casares.
Como se ha comentado más arriba, hay un grupo de documentos sin catalogar y que está sin cuantificar. Ésta es una labor a la que habrá que dedicarle un esfuerzo especial en el siguiente curso.
Si atendemos a la cualidad de los docuementos, un 47,55% (3.852) son originales y el resto, un 52,45% (4.249) son copias, fotocopias o archivos digitales.

**Divulgación**

Se ha ofrecido en Casares un servicio de atención directa al público, los jueves, de 17:30 a 20:30. Igualmente se ha atendido por teléfono (fijo de Casares y móvil) y por correo electrónico.
De un año para otro ha ido bajando el número de consultas, de 123 en 2008 a 104 en la actualidad. Es un servicio que, a pesar de ser su utilización baja, debe mantenerse. No se debe olvidar que las relaciones personales directas son muy importantes cuando se trata de buscar documentos e información de este tipo, así como para la difusión. Este servicio de consulta, por otro lado, necesita de dedicación de tiempo importante para poder atender y responder a las consultas realizadas, una dedicación, por otra parte, como ya se ha dicho, más que justificada.
Considerando el número de consultas y la capacidad para atenderlas con que se cuenta, la dedicación de una tarde a la semana parece suficiente y se debe mantener.
El fondo de la Colección Local se puede consultar además en Internet (www.altza.info). Esta es la forma de consulta de mayor alcance, tal y como se puede observar en el gráfico y taulas de más abajo. En total, en 2011, ha habido 26.741 visitas. No se puede hacer una comparación precisa con los datos del año anterior (17.567 visitas) porque aquel fue el primero, sólo estuvo abierta cuatro meses, y hubo una campaña publicitaria importante.
Un aumento significativo del número de visitas se notó coincidiendo con los actos del 25 aniversario organizados por Casares-Tomasene y AHM: la exposición de Ganbara en septiembre (2.449 visitas), el concierto y el Encuentro de Grupos de Historia Local (3.186), y por último la presentación de Hautsa Kenduz (1.795).

| Hilabetea | I | II | III | IV | V | VI | VII | VIII | IX | X | XI | XII |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Bisitak | 2034 | 1991 | 2034 | 1685 | 1783 | 2110 | 2216 | 2261 | 2449 | 2197 | 3186 | 2795 |




**Baliabideak**

Jarduera hauek garatzeko urtean 470 ordu erabili dira. Orientazio gisa, Tokiko Bildumaren garapenari honako denbora banaketa egin da, ehunekoetan adierazita:

Dokumentuak eta informazioa bildu %15
Digitalizatu %25
Katalogatu %20
Kontsulta-zerbitzua eta hedapena %25
Mantentze-lana eta kudeaketa %15

Bost pertsona aritu dira lanean urtean zehar egitasmoa gauzatzen.

Dokumentuen bilketarekin jarraitu dugu. Atal honetan nabarmentzekoa dira bere bolumenagatik eta edukiagatik bi familiek egindako ekarpenak: Casanao baserriaren oinordekoak, Casares-Mendarte familia, eta, bestetik Roman Irigoien Altzako medikua izan zenaren familiak egindakoa. Funtsa horiek, gainontzeko emaileek egiten dutenarekin bezala, digitalizatuta eta familiari itzultzen zaio epe labur batean. Informazio bilketan, prestatutako fitxa erabiltzen da batez ere eta, jakina, web orrian dagoen formularioaren bitartez. Aurten hamasei pertsonek erabili dute formulario hori datu basearen edukia osatzeko edota zuzentzeko.

Digitalizazio lana handia izan da. Esan bezala, emaileek eskainitako dokumentu guztiak epe laburrenean digitalizatzen da eta itzultzen zaie. Funtsaren digitalizazio maila, bestalde, dagoeneko altua bazen ere, igo egin da %96,6-ra.

Katalogatzeko fitxan hobekuntza txiki batzuk egin dira lana errazteko eta, katalogatzeko irizpideak ere eguneratu dira. Fitxategiak zerbitzarira igotzeko sistema berri bat martxan jarri da etorkizunean katalogatzeko lana erraztu eta arinduko duena.

Baliabide teknologikoen aldetik, aurten berritu dira, bai AHMrenak eta baita Casaresenak, ordenagailua eta internet konexioa. Horrez gain, kultur etxeak bulego materialen gastuetarako eskaintzen duen diru-kopurua nahikoa izan da.

Donostia Kulturak, hitzartutakoaren arabera, 5.000 euro ordaindu dio Altzako Historia Mintegiari bildumaren kudeaketarako. Kopuru hau nahikoa izan da zerbitzuaren kalitatea bermatzeko.

**Equipamiento**

Para desarrollar la actividad de la Colección Local le hemos dedicado 470 horas. A título indicativo, el reparto del tiempo es el siguiente:

Documentación %15
Digitalización %25
Catalogación %20
Servicio de consulta y divulgación %25
Mantenimiento y gestión %15

En la realización del trabajo han participado cinco personas.

Hemos continuado con la búsqueda de documentos. En este apartado destacaremos por su volumen y contenido las aportaciones de dos familias: la familia Casares-Mendarte, descendientes del desaparecido caserío Casanao, y, por otro lado, la familia del que fue médico de Altza Román Irigoien. Esos fondos, igual que se hace con los documentos de todos los donantes, han sido digitalizados y devueltos a sus propietarios en un plazo breve de tiempo. En la recogida de información se utiliza una ficha preparada al efecto, así como un formulario a través de Internet, utilizado el año pasado en dieciséis ocasiones.

El trabajo de digitalización ha sido importante. Como queda dicho, en un plazo corto se digitalizan y se devuelven los documentos a sus propietarios. El nivel de digitalización, que ya era alto, ha subido este año pasado al 96,6% del fondo.

Se han realizado unas mejoras pequeñas pero importantes en las fichas de catalogación orientadas a facilitar y simplificar los criterios de catalogación. En esa dirección, se ha puesto en marcha un sistema que facilita subir los archivos al servidor en el momento de hacer la ficha.

Por lo que a los medios tecnológicos se refiere, este año se han renovado los ordenadores y la conexión a Internet, tanto los de AHM como los de Casares. La aportación económica y material han sido suficientes. Gracias al convenio firmado entre DK y AHM, la Colección ha estado dotada con 5.000 euros que han permitido mantener el servicio y la calidad que presta.

## 4. Lekukoak Proiektua

Proiektu honek Altzako memoria historikoa berreskuratu, gorde eta ezagutarazteko helburua dauka. Horretarako, Altza XX. mendean bizi dituen prozesu sozialen lekukoen testigantzak biltzen ari gara, ikus-entzunezko euskarritan.

Joan den urtean zehar proiektu honen inguruan egindako lana oso urria izan zen. Proiektuari eskaini ahal izan genion denbora eskasa, oraindik argitaratu gabe dauden grabazioak digitalizatzeko eta editatzeko erabili genuen.

Euskararen ahozkotasunaren esparruan lantzen duen Mintzola Fundazioak interesa agertu du guk bildutako ahozko ondarea Euskal Herria mailan osatzen ari diren dokumentazio zentroan katalogatzeko.

Bestalde, Badihardugu Elkarteak, Euskal Herriko Ahotsak

## 4. Proyecto Lekukoak (Testigos)

Este proyecto pretende contribuir a la recuperación, preservación y difusión de la memoria histórica de Altza a través de los testimonios audiovisuales de las personas testigos de los diferentes procesos sociales que se han producido en nuestra comunidad a lo largo del siglo XX.

Durante el pasado año 2011 la actividad realizada alrededor de este proyecto fue muy escasa. El poco tiempo que se le pudo dedicar se utilizó para seguir con la digitalización y edición de las grabaciones pendientes.

La Fundación Mintzola que trabaja en el ámbito de la oralidad del euskera se ha interesado por el patrimonio oral que hemos recopilado, para catalogarlos en el centro de documentación que están elaborando a nivel de Euskal Herria.

proiektuaren arduraduna, kolaborazio-akordioa sinatzea proposatu digu.

Por otro lado, la Asociación Badihardugu responsable del proyecto Euskal Herriko Ahotsak, nos ha propuesto la firma de un acuerdo de colaboración.

## 5. Ganbara bilduma

### 1. Aurrekariak

- Ganbararen jarduera 1997. urtean hasi zen, aurreneko objektuak biltzen hasi ginenean. Bi urteetan, ordea, ez zen batere objekturik jaso eta, horrela, esan daiteke 2000. urtean bilduma berriro bizkortzen hasi zela.
- Bilduma osatzen duten objektuak bi multzotan sailkaturik daude: bildumaren helburuekin estuki loturik daudenak, hau da, industria jatorria daukaten eta etxeko erabilpena izan duten aspaldiko objektuak eta antzekoak "A" multzoan bildurik daude, eta helburu horrekin loturarik ez daukatenak "B" multzoan egongo dira. Bigarren multzo honetan sartu ditugu, adibidez, etxean erabilitako objektuak, baina jatorri industriala ez dutenak, eta baita berriagoak direnak ere, interesgarriak iruditu bazaizkigu. Era berean, badaude beste objektu batzuk errepikatuak edo osatugabe daudenda.
- 2010. urtetik aurrera ikuspegi berri batetik lan egiten dugu. Objektuek denboran zehar izan duten bilakaera erakutsi nahi dugu, hau da, industria diseinu berrien bilakaerak gure eguneroko lanean eta etxeetako bizimoduan izandako eragina erakutsi.

### 2. 2011. urteko ekitaldia

#### 2.1 Inbentarioa

2011ko abenduaren 31n A atalean sailkatutako objektuen kopurua 330koa da, eta B atalean sailkatutakoak 15. Azken urtean, beraz, A multzoan zazpi objektu berriekin osatu dugu bilduma.

#### 2.2 Jarduerak

Ganbaren jarduera nagusia joan den urtean irailean egindako erakusketa izan zen: Altzako Historia Mintegiaren 25. urteurrenaren ospakizun egitarauaren barnean Larratxo Kultur Etxean egin zen erakusketa eta irailaren 19tik 23ra bisitatu ahal izan zen.

##### 2.2.1 Finantziazioa eta laguntzak

Gipuzkoa Donostia Kutxak eta Euskadiko Kutxak ezezkoa eman ondoren, azkenean Caixaren 1.200 euroko diru-laguntza lortu genuen. Bestalde, Donostia Kulturak lagundu zuen lokala utziz eta langileen gastuak ordaintzen lagunduz. Horrez gain, propagandarako tarjetoi bat editatu zuen eta etxeetan banatu. Era berean, erakusketaren soinu eta bideo muntaketan parte hartu zuen eta erakusketa hau Casares Kultur Etxeraren hogeita bosgarren urtebetetzearen egitarauaren barnean sartu zuen. Horri guztiari Alejandro Gómezen kolaborazioa gehitu behar zaio. Alejandrok lau bideo editatu zituen eta Interneten eskegi zituen, Youtuben, modu anonimo batez, nahiz eta lehen irudi gisa Altzako Historia Mintegiaren logoa sartu duen. Bideo horietan aspaldiko objektuak ikusten dira, estetika zainduz erakutsiak eta ahalegintzen da objektu horiek non eta zertarako erabiltzen ziren erakusten. Bideo horiek Musikenen grabatutako diskoarekin batera erabili dira, txandaka. Musikeneko diskoa lehendik bageneukan eta entzuten den musika berrogeita hamargarren hamarkadakoa da.

##### 2.2.2 Prestaketa

Objektuak erakusteko aretoan 15 mahai luze zabaldu ziren, astoen gainean, eta hiru apalategi. Horiek erosteko jasotako diru-laguntza erabiltzen da. Objektu bakoitzari txarteltxo bat jarri zitzaion (denera 280) eta erakusketaren katalogo bat egin zen. Apaingarri gisa objektuen irudi handiak jarri ziren paretetan. Objektuen osagarri, panel bat osatu zen erakusketan bere produktuak zeukaten Gipuzkoako enpresen izenekin. Horrekin batera, hainbat liburu eta foiletoren erreprodukzioak ere jarri ziren bisitarien esku.

Sei kontenedore erosi dira objektuak hobeto gordetzeko eta garraiatzeko.

Antolaketa taldea. AHMko Ganbara taldea arduratu zen batez ere (Angel Almeida, Kepa Amundarain, Miguel Angel Padrones, Lazaro Altuna, Jon Serrano eta Javier Cantera), gainontzeko mintegikideen laguntzarekin (kartelak, itzulpenak, publizitatean, ideiak…).

##### 2.2.3 Bisitak

Bisitariei dagokionez, bisita gidatuak eskaini ziren. Egindako gonbidapenei bi ikastetxeek erantzun zuten interes handiarekin, Herri Ametsa Ikastolako DBHko 4. mailako talde bat eta Altza Institutuko beste bat. Horrez gain, +55 programaren talde bat ere etorri zen Angel Calvok lagunduta eta baita Aranzadi Zientzia Elkarteko etnografia sailaren presidentea Fermin Leizaola. Denera 140 lagun bisitatu zuten erakusketa.

## 5. Colección Ganbara

### 1. Antecedentes

- La actividad de Ganbara se inicia reuniendo los primeros objetos allá en el año 1997, si bien puede decirse que tras dos años en los que no hay aportaciones, el proyecto comienza a tomar fuerza en el año 2000.
- Los objetos que forman parte de la colección están agrupados en dos categorías: los que responden a la finalidad de la misma, esto es, objetos antiguos de fabricación industrial y utilización doméstica o similar denominados "A", y los que no responden a estas premisas denominados "B". Dentro de esta segunda calificación incluimos objetos que aunque su utilización sea igualmente doméstica o similar, su origen no es industrial, o bien que sean objetos recientes de interés. También se incluyen objetos repetidos o incompletos.
- A partir del año 2010 se añade un nuevo enfoque, que consiste en mostrar la evolución de los objetos a través de los años. Hacer ver cómo la evolución de los nuevos diseños industriales ha ido influyendo en el trabajo y las costumbres de nuestros hogares.

### 2. Actividad 2011

#### 2.1 Inventario

A fecha 31 de Diciembre 2011 el número de objetos de clasificación A asciende a 330 y los de clasificación B a 15. El incremento durante el año 2011 ha sido de siete objetos de clasificación A.

#### 2.2 Actividades

La principal actividad de Ganbara ha estado centrada en la exposición que se realizó en el mes de Septiembre, los días 19 a 23, dentro del programa de actos que se han desarrollado durante el año 2011 con motivo del 25 Aniversario de AHM. Esta exposición tuvo lugar en los locales de Larratxo kultur etxea.

##### 2.2.1 Financiación y colaboración

